

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

EKONOMIA SUSTAPENAREN, ENPLEGUAREN, MERKATARITZAREN ETA TURISMOAREN SAILA

Vitoria-Gasteizko udalerriko merkataritzaren eta ostalaritzaren alorreko enpresa txikien eraldaketa digitalerako laguntzen udal programaren deialdia —2021. urtea— finantzatzeko baliabide ekonomikoak handitzeari onespena emateko erabakia

2021eko urriaren 29an egindako bilkuran onetsi zuen Tokiko Gobernu Batzarrak Gasteizko udalerriko merkataritzaren eta ostalaritzaren alorreko enpresa txikien eraldaketa digitalerako laguntzen udal programaren deialdia —2021. urtea— finantzatzeko baliabide ekonomikoak handitzeko proposamena. Honela jasotzen da erabaki horretan:

2020ko abenduaren 11n onetsi zituen Tokiko Gobernu Batzarrak Gasteizko Udalaren dirulaguntzen deialdiak arautzeko oinarri orokorrak. 2020ko abenduaren 30eko ALHAOn —148. zk.— argitaratu ziren oinarri horiek.

2021eko martxoaren 18an egindako bilkuran onetsi zituen Tokiko Gobernu Batzarrak Gasteizko udalerriko merkataritzaren eta ostalaritzaren alorreko enpresa txikien eraldaketa digitalerako laguntzen deialdi publikoa eta berariazko oinarri arautzaileak —2021. urtea—.

2021eko urriaren 25ean, txosten tekniko bat egin zen, eta Gasteizko udalerriko merkataritzaren eta ostalaritzaren alorreko enpresa txikien eraldaketa digitalerako laguntzen udal programaren 2021eko deialdiaren zuzkidura ekonomikoa 67.682,03 euroan gehitzea proposatu zen bertan, uste izanenez badirela deialdiaren oinarrietan adierazitako betebeharrak betetzen dituzten hainbat proiektu aurrekontu-zuzkidurarik ezean dirulaguntzarik gabe geratuko lirakeenak.

Txosten tekniko horretan argudiatzen da laguntza-ildo horren onuradun diren enpresa txikiek inbertsio aski handiak egin dituztela digitalizatzeko, eta Merkataritza Zerbitzuan uste dela estrategia hori ezinbestekoa dela gaur egun negoziok bizirik iraungo badute.

Laguntza horien deialdiaren seigarren oinarrian aukera ematen da lehenengo laguntzak ebatzi aurretik deialdiaren zuzkidura handitzeko, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 58. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Sailak kudeatutako deialdietakoren batean soberako krediturik badago.

Bada deialdian hasiera batean aurreikusitakoa baino kreditu handiagorik, egindako hainbat aurrekontu-aldaketaren ondorioz, kreditu hori Gasteizko Udalaren 2021eko ekitaldiko aurrekontu orokorretan sartu ondoren, eta ez dago xede hori duten dirulaguntzak emateko ebazpenik.

Egiaztatu da badela nahikoa zuzkidura egokirik horretarako 2021erako onetsitako udal aurrekontuko 08.22.4314.489.64 partidari atxikita.

Laguntza horien deialdiaren seigarren oinarrian aukera ematen da lehenengo laguntzak ebatzi aurretik deialdiaren zuzkidura handitzeko, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 58. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Sailak kudeatutako deialdietakoren batean soberako krediturik badago.

Tokiko Gobernu Batzarrak du laguntza-deialdiak eta horietako baldintzak onesteko —eta behar izanez gero aldatzeko— eskumena, beraren egitekoa baita kudeaketa ekonomikoa eta, beraz, Dirulaguntzen Plan Estrategikoa bideratzea, Toki Araubidearen Oinarrien Legearen 127. artikuluko 1.g) eta 2. ataletan eta Dirulaguntzei buruzko udal ordenantzaren 5.1 artikuluan finkatutakoaren ildotik.

Horrenbestez, Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zinegotzi ordezkariak, legeak aitortzen dizkion eskumenak baliatuz, erabaki-proposamen hau egiten du:

Erabaki-proposamena

Lehena. 2021eko martxoaren 18an onetsitako Udalerriko merkataritzaren eta ostalaritzaren alorreko enpresa txikien eraldaketa digitalerako laguntzen 2021eko udal programa finantzatzeko baliabide ekonomikoak 67.682,03 euro handitzea.

Horrenbestez, Udalaren laguntza-programa hori finantzatzeko baliabide ekonomikoak, guztira, 127.682,03 eurokoak izango dira.

Bigarrena. 67.682,03 euroko gastua esleitzea 2021. urterako onetsitako aurrekontuko 2021/08.22.4314.489.64 partidari atxikita dagoen saldo erabilgarriaren kontura.

Hirugarrena. Ebazpen hau ALHAOn eta Udalaren webgunean argitara dadila agintzea, erabakitakoa Dirulaguntzen Datu-base Nazionalean jasota utzi ondoren.

Vitoria-Gasteizen, 2021eko urriaren 29an

Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko Administrazio Zerbitzuko burua
IGNACIO CEPEDA CRESPO